

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

264/2019 Foru Agindua, urriaren 4koa. Behin betiko onesten duena baldintzekin Lapuebla de Labarcako udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, 2 poligonoko 414, 454, 508 eta 392 lurzati (lurzoru urbanizaezinean) kalifikazio aldaketari buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 4ko 199/2018 Foru Aginduaren bidez (2018ko uztailaren 18ko ALHAO, 83. zenbakia) aldeko irizpenarekin eman zen ingurumen txosten estrategikoa, baldintza batzuk ezarrita, Ingurumen ebaluazioaren 21/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik.

Bigarrena. Lapuebla de Labarcako Udalak 2018ko azaroaren 15ean izandako osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onespina ematea udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualari, 414 lurzatiaren zati bat substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona gisa (Z7) kalifikatzeko, eta 454, 508 eta 392 lurzatiaren zati bat substratu hauskorrean leheneratu beharreko baso zona gisa (Z-3). Halaber, erabaki zuen espedientea jendurrean jartzea; horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 2018ko azaroaren 28ko 137. zenbakiko ALHAOn, El Correo egunkarian 2018ko abenduaren 5ean eta "Diario de Noticias de Álava" egunkarian 2018ko abenduaren 10ean.

Hirugarrena. Jendurrean egon zen epean, ez zen alegaziorik aurkeztu, eta udalak, 2019ko maiatzaren 16ko osoko bilkuran, espedienteari behin-behineko onespina eman zion gehiengo osoz.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Arabako Plangintza Sekzioaren uztailaren 17ko 5/2019 saioan erabaki zuen eragozpenik ez jartzea erreferentziako espedienteari, eta bidaltzea Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako txostena eta URA - Uraren Euskal Agentziaren 2019ko uztailaren 12ko txostena.

Bosgarrena. Lapuebla de Labarcako Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onartua izan zedin, hain zuzen, 2019ko abuztuaren 6ko sarrera datarekin aldundiaren erregistroan.

Seigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Sailak, 2019ko irailaren 17ko irteera datako idazkiz, Lapuebla de Labarcako Udalarik jakinarazi zion udal arkitektoaren txosten teknikoa falta zela.

Zazpigarrena. Lapuebla de Labarcako Udalak, jakinarazpen horren erantzunez, udal arkitektoaren bi txosten tekniko bidali zituen 2019ko irailaren 24an; ondorioz, espedientea zuzendu dela jotzen da.

Zortzigarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betez, espediente horren berri eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak urriaren 2ko 2/2019 saioan.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Ercoro SCk sustatutako espediente honen xedea da aldatzea Lapuebla de Labarcako 2 poligonoko 414 lurzatiaren zati baten kalifikazioa, hain zuzen, gaur egun 1 zona "Espazio naturaleko zona (El Esperal)" eta 2 zona "Paisaiaren babes zona" dena, eta pasatu 7 zonara "substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona", gainerako lurzatiaren kalifikazioa den bezala.

Modu osagarrian, aldaketa konpentsatzeko eta kasuan kasuko ingurumen ebaluazioan proposatutako neurri konpentsatzaileak betetzearekin koherentzia izanez, proposatzen da 2 poligonoko 454, 508 eta 392 lurzati kalifikazioa ere aldatzea, inguruan egonik udalarenak direnak, eta indarreko planeamenduan 7 zona gisa (substratu hauskorren gaineko erabilera mugatuko nekazaritza zona) kalifikatuta dauden lurzati horien zatia 3 zona (substratu hauskorrean leheneratu beharreko baso zona) izatera pasatzea.

Bigarrena. Dokumentu teknikoak justifikatzen du aldaketa hori egiteko beharra, lurzati osoaren landaketa mahasti gisa berreskuratzeko, nekazaritza erabilera 7 zonan onartuta dagoelako; baina ez 1 zonan eta 2 zonan.

Izan ere, ortoargazki zaharretan eta Arabako Foru Aldundiko Mendien Zerbitzuak 2013ko apirilaren 11n egindako txostenean jasotzen denez, betitik mahasti erabilera izan duen lurra da.

Hirugarrena. Aldaketa gai diren lau lurzatiak Nekazaritza eta Basogintza ALPk "Baso-mendi soila" definitutako kategorian sartuta daude. Hala ere, AFAko Mendi Zerbitzuak egindako txostenean, lehenago aipatuan, hau jasotzen da 2 poligonoko 414 lurzati dela eta: "mahasti zaharrek hartuta dagoenez, zuhaixka larrez beteta, ezin daiteke esan baso lurzuria denik, (...)".

Laugarrena. 2018ko ekainaren 18an, Sustapen Ministerioako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Orokorrak alde txostena egin zuen zortasun aeronautikei dagokionez, baldintza honekin: hirigintza plangintzan sartzea, bai arau planoetan bai araudian, Logroño-Agoncillo aireportuaren zortasun aeronautikoak. Baina aldatutako hirigintza araudian ez dira sartu.

Bosgarrena. Ingurumenaren txosten estrategikoan, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 4ko 199/2018 Foru Aginduz egina eta 2018ko uztailaren 18ko ALHAOn (83. zk.) argitaratua, azaltzen da hirigintza dokumentuan sartu beharra dagoela ingurumeneko agiri estrategikoan jasotako neurri guztiak bai eta ingurumeneko integrazio neurri hauek ere:

1. Ingurumen agiri estrategikoan jasotakoarekin bat eginez, bereziki 8. eranskinarekin ("392., 454. eta 508. lurzatiak birpopulatzeko proposamena"), beharrezkoa da aldaketa puntualean 392., 454. eta 508. lurzatiaren eremu osoan tokiko landarediarekin birlanaketa egingo direla jasotzea. "Sine qua non" baldintza da 414. lurzati mahastiekin landatzeko lehengoratzak zuzentasunez egikaritzea eta kontrolatzea. Horri dagokionez, 8. eranskinean planteatutako birlanaketa egokiak dira, baina eranskin hori honako jarduketara eta jarraibideekin osatu beharko da, lehengoratzak zuzen egiten dela bermatzeko:

– Landaketan lurzatiaren landaredia naturalari ez zaio eraginik sortuko. Lursaila gutxieneko inpaktuarekin prestatuko da, eta hala, landaredia kentzea eta lursaila prestatzea bakarrik landaketa eremu zehatzean egingo dira.

– Lurzatiaren zenbait eremutan kalitatezko landare lurreko gutxieneko 0,4 m-ko geruza jarri eta perfilatu behar bada, jartzea bakarrik landaredia kenduta dagoen eremuetan egingo da, eta hala, landaredia naturalak estalitako eremuetan ahalik eta eragin gutxi sortuko dira.

– Landatze lanak egitea:

Zuhaitz eta zuhaixka espezieak. Aldaketa puntualekoak direnak, hau da, mediterranean garria sikukoak, hauek: artea (*Quercus ilex*), txaparra (*Quercus coccifera*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), ezkaia (*Thymus vulgaris*), izpilikua (*Lavandula spp*), etab.

Zuhaitzak: ontzian aurkeztutako aleak, 0,60 m-tik 0,90erakoak, izerdi bat edo bikoak eta sustraiaren lepoan gutxienez zentimetro batekoak. Bi edo hiru metroko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxieneko dimentsioak: 0,5x0,5x0,6m.

Zuhaixkak: 0,5eko garaierako aleak. Landareen arteko distantzia 1 m izango da eta zuloaren gutxieneko neurriak: 0,4 x 0,4 x 0,4 m.

Zuloa kalitatezko lurraekin bete ondoren, gainazalean txorko bat egingo da, erradioan 40 cm izango ditu eta ildo bitartean altuera 10 cm-koa izango da, eta 40/1 landareko ureztatzea

egingo da. Askatze moteleko ongarria erabiliko da, 100 gr/ale, baita ongarri organiko konpostatuko kilo bat ere.

Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarritzko babes bat jarriko da, "Horsol" motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m²-koa, metro bateko zabalera osokoa, lur azpian 20 cm jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko. Landare guztietan 60 cm-ko garaiera izango duen "Tubex" motako babesgarriak jarriko dira, bai eta akaziazko tutore bat ere.

Landatzeko garaia: abendua-otsaila.

Landaketen erabateko mantenua. Ur eskasia dagoen aldietan, landaketak ureztatu beharko dira, eta ureztaketa bakoitzean 12 l ur erabili beharko da landare bakoitzeko; lehen ureztaketan, berriz, degradazio moteleko NPK ongarri kimikoaren 100 gramo erantsiko zaio ureztatzeko urari landare bakoitzeko (3.000 kg/ha). Ondoztatzeak, saratzeak eta joraketak ere egingo dira beharrezkoak izanez gero, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kenduko dira, eta zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berrituko dira.

2. 414. lurzatian mahastia landatu aurretik eta 392., 454. eta 508. lurzatieta proiektatutako birlandaketak egin aurretik beharrezkoa izango da sustatzailea Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, LPB-55 etxola identifikatzeko eta bertan eraginik ez sortzeko (Guardia- Arabako Errioxako Kuadrillaren ondare arkitektonikoko elementu txikien inbentarioaren barne dagoena) eta terraza egite historikoak dauden edo ez dokumentatzen saiatzeko. Horri buruz Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak ezarriko dituen arauak jarraituko dira, eta hori guztia Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko den ekainaren 3ko 89/2014 Dekretua betez.

Dena den, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko irailaren 24an egindako txostenaren arabera hirigintza dokumentuan sartu beharrezkoa ez da sartu.

Seigarrena. Aldaketa honen dokumentu teknikoa aztertu da eta aldatu edota zuzendu beharrezko hainbat gaiza aurkitu dira; hona:

1. "Aldaketak eragindako araudia" izeneko 8. apartatutik atera behar dira aldatu ez diren artikulak.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta osatuta, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan -*.ctb (arkatzak) edo *.shape fitxategiak ere bai haiekin- eta testua *.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onespina ematea Lapuebla de Labarcako udal planeamendua-
ren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, 2 poligonoko 414, 454, 508 eta 392
lurzati (lurzoru urbanizaezinean) kalifikazioa aldatzeari buruzkoa, baldintza hauekin:

1. Aldatutako hirigintza araudiko artikuluetan sartzea Logroño-Agoncillo aireportuaren zor-
tasun aeronautikoei buruzko mugak, Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza
Orokorrak 2018ko ekainaren 18an egin zuen txostenean jasotzen denaren arabera.

2. Hirigintza agirian sartzea ingurumenaren agiri estrategikoan jasotako neurriak eta In-
gurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren uztailaren 4ko 199/2018 Foru Aginduaren 4.
puntuak dauden ingurumeneko integrazio neurriak, hain zuzen, Lapuebla de Labarcako arau
subsidiarioen aldaketa puntualaren (414, 392, 454 eta 508 lurzatiak) ingurumeneko txosten
estrategikoan jasoak (foru agindu honen bosgarren oinarrian daudenak).

3. Ezabatzea "Aldaketak eragindako araudia" izeneko 8. apartatutik aldatu ez diren artikulak.

4. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta osatuta, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan –*.ctb (arkatzak) edo *.shape fitxategiak ere bai haiekin– eta testua *.doc edo docx. luzapeneko fitxategian.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko urriaren 4a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO